



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko ekainaren 7a

84. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

- 11-24/PRO-00007. Foru-lege proposamena, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legea aldatzekoa. Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (3. or.).
- 11-24/PRO-00008. Foru-lege proposamena, Toki Inbertsioen Plana arautzen duen martxoaren 22ko 8/2022 Foru Legea aldatzekoa. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).
- 11-24/PRO-00009. Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (7. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00081. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen baitu Mendebaldeko Sahara lurralde ez-autonomia dela, nazioarteko zuzenbidearen mende dagoena eta sekula ere ez dena Marokoko Erresumaren parte izan. Unión del Pueblo Navarro, EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai, Nafarroako Alderdi Popularra eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (9. or.).
- 11-24/MOC-00082. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak eta Nasuvinsa premiatzen baitira Alokairu Poltsa programa landa-eremuen eta despopulazio-arriskuan dauden udalen inguruabarretara egokitu dezaten. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkeztu du (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00276. Galdera, Nair Cener-i kontratatutako zerbitzuei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00277. Galdera, Bustince jauna Nair Cener-eko zuzendari zientifikoa ez izateari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (13. or.).

- 11-24/PES-00278. Galdera, Martzillako zubian egin beharreko lanei buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00279. Galdera, “Epaiak betearaztea, egonkortzeagatiko kalte-ordainak eta konpentsazioak” izeneko F30001-F3100-1820-921400 partidako kreditua handitzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00280. Galdera, “Epaiak betearaztea, egonkortzeagatiko kalte-ordainak eta konpentsazioak” izeneko 400000-41000-1820-322000 partidako kreditua handitzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00281. Galdera, INTIAko Administrazio-kontseiluak onetsitako batzorde betearazlea sortzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00282. Galdera, eguzki-panelak paratzeko dirulaguntza-eskariei buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00283. Galdera, Alaitz Bigarren Hezkuntzako Institutuari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (17. or.).
- 11-24/PES-00284. Galdera, biztanleriaren euskara jakite mailaren gaineko estatistikaren ohar metodologikoari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (17. or.).
- 11-24/PES-00285. Galdera, 8 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko 8 asteko guraso-baimena Nafarroan aplikatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (18. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez sortzen baita sistema informatikoetako teknikari-ofizialaren lanpostu bat, eta erakundearen plantilla organikoa aldatzen baita (20. or.).
- Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Kontuen Ganberaren Antolamendu Erregelamenduaren 14. artikulua (21. or.).
- PER20240010. Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko Nafarroako Parlamentuko ikus-entzunezko komunikazioko teknikaria izateko lanpostu bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (22. or.).
- PER20240010. Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko Nafarroako Parlamentuko ikus-entzunezko komunikazioko teknikaria izateko lanpostu bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Akats zuzenketa (23. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00007. Foru-lege proposamena, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena aurkeztu dute, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru-lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Kultura entretenimendu edo aisialdiaz askoz harago doa: eskubide unibertsal bat da, bermatu behar dena. Ezinbestekoa da pertsonen garapen integralerako eta, horrenbestez, gizartearen ongizatean aurrerapausoak emateko, bai eta garapen sozioekonomikorako ere. Halaber, kultura gizarte-integrazio eta -kohesiorako tresna bat da, migrazioak, bizikidetzeta eta gizarte-aldaketak nagusi diren testuinguru batean.

Halatan, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948ko abenduaren 10ean onetsitako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 27. artikuluan ezarrita dagoenez, pertsona orok du eskubidea erkidegoaren bizitza kulturalan libreki parte hartzeko, arteez gozatzeko, aurrerapen zientifikoan eta horrek dakartzan onuretan parte hartzeko, bai eta norberak egindako lan zientifiko, literario edo artistikoak direla-eta dagozkion interes moralak babestuta edukitzeko ere.

Horrenbestez, ezberrik gabekoa da kultura gure gizartearen funtsezko elementu dela; eta, alde horretatik, urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legeak, Nafarroako Eskubide Kulturei buruzkoak, gure ordenamendu juridikoko zinezko mugarri den horrek, paradigma-aldaketa bat ekarri zuen, kulturarako eskubidetik eskubide kulturaletara pasatzea ahalbidetu zuena, bai eta erraztu ere eskubide horiek giza eskubide bezala baliatuak izatea, orobat errazturik kulturarako eta sorkari artistikoetarako irispide unibertsala eta bizitza kultureko parte-hartzea. Halaber, sormena sustatu zuen, arte-adierazpideak aldeztu zituen, eta langileek kulturagintzan eta ekintzaileek kulturaren eta sorkuntzaren industrietan daukaten zeregina babestu eta aitortu zuen.

Aipatu legeak printzipio batzuk ezartzen ditu, bermatzekoak pertsona orok irispidea izan dezan, zein ere den bere egoera sozial, ekonomiko, kultural edo geografikoa, ondasun eta zerbitzu kulturaletara eta bizitza kulturean parte hartu eta horren garapenari ekarpena egitera.

Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko 1/2019 Foru Legeak berak, bere 1.2 artikuluan, dio: "foru lege honetan xedatutakoa betetzeko, Nafarroako Administrazio Publikoek koordinatuko dituzte eskubide kulturekin lotuta gauzatzen dituzten jarduketak, bermatu eta sustatuko dute eskubide horien erabilera eta kultur ondasun eta zerbitzuetarako irispidea izatea, eta ziurtatuko dute sortzaileen, kultur eragileen eta herritarren parte-hartzea bizitza kulturean eta kulturaren arloko politika publikoak diseinatu, garatu eta ebaluatzeko prozesuetan". Horregatik, 5.1 artikuluan, foru legeak xedatzen du: "foru lege honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan aurreikusitako baldintzetan, Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoek bermatuko dute eskubide kulturalak osotara eta libreki erabiltzea egiazko berdintasuneko araubidean, horretarako behar diren aurrekontu-neurriak hartuz, bai eta behar diren gainerako neurriak ere, izaera positiboa eta sustapenekoak dutenak barne".

Alabaina, "horretarako behar diren aurrekontu-neurri"ei buruz ezarritako bermea kontzeptu juridiko zehazgabea da, besterik gabeko asmo-adierazpen batera eraman dezakeena, inolako efekturik gabekoa.

Bestalde, teknologia berriek irekitzen duten bideak eta egile-eskubideen eta jabetza intelektualaren defentsak ekartzen dituen erronkek behartzen dute legedia etengabe eguneratzera. Horrela, legediak bizirik dirau gizartearen bilakarearen parean.

Hori dela-eta, beharrezkotzat jotzen da Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko 1/2019 Foru Legea aldatzea arau berri bat gehituz, ziurtasuna eta berme juridikoa emanen duena, helburuak zehaztu ahal izateko.

Hori horrela, Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legea aldatzea proposatzen dugu, honelaxe:

Artikulu bakarra. Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legea aldatzen da, jarraian adierazten den moduan:

Bat. I. kapituluan, 21. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

"Ordenamendu juridikoari jarraikiz, pertsona guztiek eskubidea dute artearen eta literaturaren alorretako ekoizpen eta sorkuntzarako, eta beren sorkariak beren aukerako lengoia, kode eta formatuetan adierazi edo formulatzeko, jabetza intelektualeko eskubideak errespetatuz, pertsonak eta sorkuntza artistikoko prozesuek sortuak, sistema teknologiko berritzaileak ere erabiltzeko aukerarekin, hala nola adimen artifiziala, sorkuntza-prozesuen lagungarri gisa bai baina ordezkotza gisa ez".

Bi. Hirugarren xedapen iragankorra gehituko da. Testu hau izanen du:

"Jarduera eta zerbitzu kultureletarako aurrekontu-baliabideak eta Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontu orokorretan kultur eginkizunera bideratzen dituenak urtero pixkanaka gehituko dira, halako moldez non 2030. urtetik aurrera ezin izanen baitira izan Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontu orokorraren % 1,5 baino txikiagoak.

Era berean, eta aurrekontuak uzten duen eskuragarritasunaren arabera, beharrezkoa izanen da pizgarri fiskalak eta mezenasgoa aldiro berrikustea, Nafarroako kultur sistemaren lehiakortasuna mantentzearen eta adierazitako aurrekontu-helburua lortzeko lagungarri gisa".

Hiru. Azken xedapenetatik seigarrena izanen den bat gehituko da. Testu hau izanen du:

"Nafarroako Gobernuak jardun eta zerbitzu kultureletara eta kultur eginkizunera bideratzen dituen aurrekontu-baliabideak ezin izanen dira izan, 2030etik aurrera, Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontu orokorraren % 1,5 baino txikiagoak, eta hori gutxienezko gastu gisa finkatu eta joko da hortik aurrerako aurrekontu-ekitaldiarako".

Lau. Azken xedapenetatik zazpigarrena izanen den bat gehituko da. Testu hau izanen du:

"Halaber, baldintza teknikoen pleguetan, edo bitarteko berekiei jarduerak edo zerbitzuak enkargatzean, dirulaguntzen esparruan, izendun dirulaguntzetarako, zuzeneko dirulaguntzetarako, norgehiagokazko laguntzetarako edo beste entitate batzuei eginiko transferentzietarako administrazio-prozeduretan, zeinetan diruz lagundutako jardun edo xedea egite aldera modua baitago adimen artifizialeko teknikez baliatzeko, Nafarroako Gobernuak saiatuko da esanbidezko klausula bat txertatzen, non adieraziko baita ezen edozein jarduera egiteko asmoz adimen artifizialeko ereduak erabiliz gero, hornitzaileak horren berri eman beharko duela, bai eta zehaztu ere proiektua gara-

tzen duten pertsona fisikoek izanen duten esku-hartzearen maila eta berrikuspen-zeregina. Begirune gorena bermatu beharko da adimen artifizialaren eta jabetza intelektualaren gaiari buruz dagoen araudiaren aldera, bai eta dataset-aren gardentasuna ere, eta bete egiten direla gai honi buruzko araudi propioa taxutu bitartean adimen

artifizialari buruz dagoen araudiak ezartzen dituen gainerako betebeharrak".

Azken xedapena. Indar-hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

11-24/PRO-00008. Foru-lege proposamena, Toki Inbertsioen Plana arautzen duen martxoaren 22ko 8/2022 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak Toki Inbertsioen Plana arautzen duen martxoaren 22ko 8/2022 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena aurkeztu du, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Toki Inbertsioen Plana arautzen duen martxoaren 22ko 8/2022 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru-lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Toki Inbertsioen Plana arautzen duen martxoaren 22ko 8/2022 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

2022ko martxoaren 22an, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Bere 15. artikuluan, aipatu foru legeak inbertsioen finantzaketaren gehieneko ehunekoak ezartzen ditu, zenbateko lagungarriaren (BEZA kanpo) % 65ekoa den baxuenetik, zeina baitagokie jasandako BEZaren kenkarirako eskubidea sortzen duten sarerik gabeko zoladura-lanetarako eta udal eta kontzejuzuzkiduretarako inbertsioei, harik eta zenbateko lagungarriaren (BEZa kanpo) % 85eraino, zeina baitagokie hornidura-sareetarako, saneamendu-sareetarako eta euri-uretako sareetarako, zoladura-lanak sareekin egiteko eta zeharbideak urbanizatzeko inbertsioei, ez badute sortzen jasandako BEZaren kenkarirako eskubiderik.

Horri gehitu behar diogu badaudela zenbait toki-entitate, zeinetan sare- eta zoladura-konponketaren kostua handiagoa baita, interes historiko edo artistikoari dagozkion zertzeladak tarteko.

Nafarroaren lurralde-errealitatea halakoa da non bai baitaude populazio oso urriko toki-entitateak, beren aurrekontuaren murriztagatik ezin aurre egin dieten eskumen eta inbertsio-premiak dauzkatenak.

Toki Administrazioari buruzko gure Foru Legeak, 29, 30 eta 39. artikuluetan, eskumen-sorta bat esleitzen die udal eta kontzejuei, hala nola zoladura-lanen eta saneamenduen mantentze-lanak, zeinak, kasu batzuetan diru-arrazoiak tarteko, aurre egin ezinekoak gertatzen baitzaizkie, horre-

la toki-autonomiako printzipioak urratuta. Egoera jakin batzuetan, finantza-ezintasun horrek interes eta osasun publikoari kalte egiten eta arrisku bat ekartzen dio, nola gertatzen baita osasuna kolokan jar dezaketen fibrozementuzko hoditeria zaharrak berritu ezinarekin, ezin konta ahala ur-isuri dituzten arren, ura bezain ondasun premiazko eta eskas baten milaka litro xahutzen dituztenak, gure gaur egungo legediak problema horiek konpondu gabe utzita, hain zuzen entitate horiek, besterik gabe, ez daukatelako, ez eta edukiko ere, beharrezkoak diren ekintzen zenbateko ez-finantzagarriari aurre egiteko moduko diru-baliabiderik.

Hori horrela, Toki Inbertsioen Plana arautzen duen martxoaren 22ko 8/2022 Foru Legea aldatzea proposatzen da, jarraian adierazitako moduan aldatu ere:

Artikulu bakarra. Toki Inbertsioen Plana arautzen duen martxoaren 22ko 8/2022 4/2022 Foru Legearen 15. artikuluari 4. apartatua gehitzen zaio. Hona testua:

«4. Zilegi izanen da zenbateko lagungarriaren (BEZa barne) % 100 finantzatzea, Departamentuko zerbitzu tekniko, juridiko eta ekonomikoek

aurretiaz txostena eginda, 500 biztanle baino gutxiagoko toki-entitate batek aurkezturiko inbertsioen kasuan, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Inbertsioaren premia behar bezala justifikatuta egotea.

b) Toki-entitatearen aurrekontua txikiagoa izatea toki-entitate horri artikuluko honen 1. eta 2. puntuen arabera bere gain hartu beharrekoa suertatuko zaion partearen zenbatekoa baino.

c) Toki-entitatearen diruzaintza-gerakina txikiagoa izatea toki-entitate horri artikuluko honen 1. eta 2. puntuen arabera bere gain hartu beharrekoa suertatuko litzaiokeen partearen zenbatekoa baino.

d) Toki-entitatearen zorra, halakorik egonez gero, txikiagoa izan beharko da haren urte-aurrekontua baino.

5. Goiko 4. apartatuak aipatzen duen finantzatzea atzeraeraginez aplikatuko zaie bertan zerrendaturiko baldintzak betetzen dituzten entitateenak izanik planean sartuta dauden inbertsio guztiei».

11-24/PRO-00009. Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen foru-lege proposamena aurkeztu du, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru-lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Azken hiru urteotan, COVID-19aren krisiaren ondorioengatik inflazio akutuko aldia jasan dugu, tirabira geopolitikoek areagotua, hala nola Ukrainako inbasioak munduko ekonomian izandako inpaktuak edo, berrikiago, Ekialde Hurbilekoak. Inflazio-aldi horren bortitzak agerian jarri ditu inflazioaren efektu kaltegarriak; batik bat, etxe eta familien errentari ekartzen dion erosahalmengalera dela medio. 2020ko abuztuaz geroztik, Nafarroan KPIk % 20ko gorakada metatua izan duen bitartean, elikagai eta edari ez-alkoholikoek % 33ko igoera izan dute. Gainera, urtearteko inflazioa, hasiera batean agudo erori bazen ere, badirudi % 3ko zorua jo eta jo ari dela, baina zoru hori hautsi gabe, halako moldez non zail askoa gertatzen ari baita % 2aren helmugaranzko desinflazioaren azken etapa.

Efektu hori bi bilakabidek areagotzen dute. Batetik, prezio-igoera geraztearren taxutu eta inplementaturiko politika ekonomikoek hoztu egiten dituzte eskaria eta ekonomia; esate baterako, diru-politikan interes-tasak igotzeak hipoteka asko garestitzen dituelako. Bestetik, inflazioak distortsionatu egiten du gure zerga-sistema, zeinaren parametroak –hala nola PFEZ-pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako tarteak edo kenkariak– dirutan edo nominalki ezartzen baitira. Zehazki, inflazioak, errenta-igoera baliokiderik ez dagoenean, erosahalmena kentzen die errentei, baina halako moldez non diru-sarreraren erosahalmengalera horri ez zaion uztartzen PFEZaren moldaketa bat, aintzat hartuko lukeena zerga hori ordaintzen dutenen ahalmen ekonomikoak behera egin izana.

Baldin prezio-igoerarekin batera horren baliokidea den errenta-igoera bat gertatuko balitz, orduan ere inflazioak zerga-ordainketa errenta horiei legokiekeena baino handiagoa izatera bultzatuko luke, ezen, errenta horien erosahalmenari utsita ere, batez besteko tasa handiagoetan egiten litzateke zerga-ordainketa: dela goragoko tarte batera jauzi egiteagatik, dela tasa altuaren

aplikazio-eremuan errenta-proporzio handiagoa suertatzeagatik. "Hotzezko progresibitate" gisa ezagutu ohi den efektua da.

Bi kasu horietako edozein, bai eta errentak prezioak baino erritmo apalagoan igotzen direnekoak ere, ezbairik gabe de factoko zerga-igoera bat dira. Igoera mozorrotua, ez dena onetsia izan zerga-arloko edozein lege-aldaketa egiteko beharrezkoak diren prozedurei jarraituz. Zerga ez bada inflazioaren arabera doitzen, zerga-karga igo egiten da nahiz eta zergadunaren eroshalmenaren areagotzerik gertatu ez, azken horrek izan behar-ko lukeen arren jasandako zerga-kargarako aldagai erabakigarria.

Iraganean, tributu-arloko gure autonomia baliatuz, Nafarroan zenbait deflaktazio egin izan dira, diskrezionalki, PFEZean. Alegia: zergaren parametro nominalak doitu egin dira, aurreko epealdiren batean jasandako inflazioaren parte bat aintzat hartze aldera. Egia bada ere doikuntza horiek prezio-igoeraren efektua indargabetzearen beharri erantzuten diotela, diskrezional izate horren ondorioz eskas edo hankamotz suertatzen dira, bai eta zalantzazko ere, eta kasuko bolada politikoko gorabeheren eraginpean geratzen dira.

Aitzitik, deflaktazio automatiko batek, halakotzat jasota gure zerga-legeetan, gainditu eginen lituzke muga horiek, jadanik gertatzen ari den bezala Frantzia, Estatu Batuak, Herbehereak edo Kanada bezalako herrialdeetan, eta, berriki, besteren batean ere, Austrian kasu.

Deflaktazioa automatikoki gauzatu dadin lortzeko, beharrezkoa da PFEZa uztartzea Nafarroako Kontsumo Prezioen Indizearen urtetik urterako bilakaerari.

Hori horrela, proposatzen da presako izapidez eta irakurraldi bakarrean aldatzea 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duena, jarraian adierazten den bezala:

Artikulu bakarra.

Aldatu egiten da 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duena, xedapen gehigarri berri bat erantsiz, honako testu hau izanen duena:

Hirurogeita hamargarren xedapen gehigarria. Oinarri orokorrari aplikatzekoa den tarifa deflaktatzea, bai eta gutxieneko pertsonalagatiko eta gutxieneko familiarragatiko kenkarien zenbatekoak ere.

1. Foru lege honetako 59.1 artikuluko likidazio-oinarri orokorra deflaktatu eginen da Nafarroako Kontsumo Prezioen Indizearen bilakaera % 2 baino gehiagokoa denean. Deflaktazioaren zenbatekoa eginen da aintzat harturik Nafarroako Kontsumo Prezioen Indizeak abenduan agertzen duen urtearteko aldaketaren tasa, hurrengo zergalditik aurrerako eraginez.

2. Halaber, foru lege honetako 62.9 artikulua hizpide dituen gutxieneko pertsonalagatiko eta gutxieneko familiarragatiko kenkarien zenbatekoak aurreko 1. apartatuan zehazturiko modu berean handituko dira.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00081. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen baitu Mendebaldeko Sahara lurralde ez-autonomoa dela, nazioarteko zuzenbidearen mende dagoena eta sekula ere ez dena Marokoko Erresumaren parte izan

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO, EH BILDU NAFARROA, GEROA BAI, NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro, EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai, Nafarroako Alderdi Popularra eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen baitu Mendebaldeko Sahara lurralde ez-autonomoa dela, nazioarteko zuzenbidearen mende dagoena eta sekula ere ez dena Marokoko Erresumaren parte izan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren batzordean presako prozeduraren bidez eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

2024ko urtarrilaren 13an, Gasteizen Eusko Legebiltzarraren egoitzan bilduta, Bakea eta Askatasuna Sahara Mendebaldean taldearteko

XXVII. Konferentzia egin zen, Estatuko autonomia-erkidegoetako legebiltzarrak ordezkatur. Bertan, berritu egin ganuen Saharako herriaren askatasunezko etorkizunarekiko konpromisoa, eta adierazi genuen oso garrantzitsuak izan direla parlamentuen taldeartekoen iraganeko konferentzietan lortutako akordioak, eta berretsi egin genituen 1992an Palman egindako konferentziaren ondotik onetsiriko ondoz ondoko adierazpenak, zeinetan, besteak beste, aldarrikapen argi eta garbia egiten baitzen, Nazio Batuen ebazpenetan eta nazioarteko zuzenbidearekiko errespeturik handiengan oinarrituta, Saharako herriak erreferendum bidez bere autodeterminaziorako daukan eskubide zilegiaren alde, duela zenbait hamarkadatik dirauen deskolonizazio-prozesuaren azken urrats gisa.

Geroago, maiatzaren 4tik 11ra bitarte, Parlamentu honen ordezkari bat bisitan joan zen, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkariekin batera, errefuxiatu sahararren Tindoufeko kanpalekuek.

Mendebaldeko Sahara Marokok ilegalki okupatutako herrialdea da, Nazio Batuek deskolonizatzeko dagoen lurralde ez-autonomo deklaratu.

1976ko otsailaren 27an aldarrikatu zen Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoaren independentzia, eta martxa berdea deritzanetik aitzina Marokok okupatutako lurraldearen gaineko konstituzioa promulgatu zen. Harrezkero, Mendebaldeko Sahara Marokok *de facto* (ezen ez *de iure*) administraturiko lurraldea da.

NBEren ebazpenek aitortzen dute saharar herriak autodeterminaziorako eskubidea duela, erreferenduma eginez deskolonizazio-prozesuko

azken urrats gisa, zeren eta Sahararen egoera hau duela zenbait hamarkadatik dirauen deskolonizaziotzat jotzen baita.

Marokoko gobernuak okupatutako lurraldeetan errepresio- eta jazarpen-politika pairatzen dute Saharako herriaren autodeterminazioa aldeztzen duten saharar guztiek. Jazarpen horren ondorioz, espexeratze bidegabeak gertatzen dira, eta hori dela-eta Nafarroako Parlamentutik gure elkartasuna helaraz nahi diegu preso politiko guztiei, bereziki Gdeim Izik-ekoei, beren kondenak prozesu ilegal eta bermerik gabeko baten ondorioz iritsi baitziren; horiek berehala askatzea exijitzen dugu, eta gure babesa ematen diegu horien familiei, giza eskubideak behar besteko bermeez justizia eskatzen baitute.

Orain, Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoa aldarrikatu zenetik 48 urte igaro direlarik, bizi den egoeraren aitortza esplizitua egin behar dugu, eta argi utzi ezen Fronte Polisarioa dela Saharako herriaren ordezkari bakar eta legitimoa, NBEk eta nazioarteko erkidegoak onartzen duten legez. Hortaz, Marokoren presentzia Sahara Mendebaldean legez kanpokoa da, eta ezin du ondorio juridiko edo politikorik izan Saharako herriak duen autodeterminazio eta independentziarako eskubidearen kaltean.

48. urteurren honetan, Nafarroako Parlamentuak berriz adierazi nahi duenez Saharako herriaren alde dagoela, mozio hau sinatzen dugun talde parlamentariook honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Sahara Mendebaldea nazioarteko zuzenbidearen mende dagoen lurralde autonomo bat dela, sekula ere ez dena Marokoko Erresumaren parte izan, eta haren okupazio ilegala amai dadin eta Saharako herriak autodeterminazio eskubidea balia dezan exijitzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak erreferentziazkotzat jotzen du Auzitegi Nazionalaren autoa, zeinaren bidez Espainia *de iure* Sahara Mendebaldearen "potentzia administratiboa" dela adierazten baitu.

3. Nafarroako Parlamentuak Marokoko Erresumari exijitzen dio saharar preso politiko eta kontzientziakoak berehala aska ditzan, eta giza eskubideen urraketak amai daitezten berak kontrolatzen dituen espexheetan, preso osotasun fisiko eta psikikoa bermatuz, eta elkartasuna helarazten die horien familiei.

4. Nafarroako Parlamentuak bere estimua eta elkartasuna helarazten die Gdim Izik-eko presoiei, beren kondenak prozesu ilegal eta bermerik gabe-

ko batean jaso baitzituzten, eta berehala aska ditzaten exijitzen dut, eta familiekin bat egiten dugu justiziaren eta askatasunaren alde daramaten borrokan.

5. Nafarroako Parlamentuak berriro salatzen du Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharan natur baliabideen espoliazioa egitea, epaiak epai, eta zonaldean ari diren enpresei exijitzen diegu nazioarteko zuzenbidea eta saharar populazioaren eskubideak errespetatu ditzatela. Interesdunak premiatzen ditu (enpresak eta herrialdeak) negoziazioak abiaraz ditzaten Saharako Herriaren ordezkari legitimoekin (Fronte Polisarioa).

6. Nafarroako Parlamentuak dio ezen, Mendebaldeko Saharak bizi duen egoera larria ikusita, MINURSOk Mendebaldeko Saharan dauzkan funtzioak eta egitekoak areagotu behar dituela. Hortaz, Nazio Batuak premiatzen ditugu Misioari ahalmena eman diezaion sahararren giza eskubideak zaintzeko eta babesteko lurralde okupatuetan.

7. Nafarroako Parlamentuak Europar Batasunari exijitzen dio Marokoko Erresumarekiko Lehenetsuneko Akordioan ezarritako giza eskubideei buruzko klausula baliaraz dezan.

8. Nafarroako Parlamentuak indartu egin nahi du Emakume Sahararren Batasun Nazionalarekiko lankidetzak, funtsezko eginkizuna baitaukate, erabakigarria, errefuxiatuen kanpalekuetan. Halaber, giza eskubideen urraketa biktimen ikusezintasun-egoeraz ohartarazi nahi du. Bereziki, lurralde okupatuetan desagertutako emakumez.

9. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatu erakunde publikoak premiatzen ditu laguntza solidario eta humanitarioa areagotzen jarrai dezaten, hala Tindufeko kanpalekuetako errefuxiatuei nola lurralde okupatuetako sahararrei.

10. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari gatzigatzen dio jarrera irmo eta esplizitua hartu beharra duela Marokoko Erresumako Gobernuak behin eta berriro egindako saiakeren aitzinean, zeinen bidez Kanarietako uretaraino hedatu nahi baitu bere eskumen-esparrua, eskualdean arazo gehiago eta egonkortasun eza ekar ditzakeen interes espantsionista argia erakutsiz.

11. Nafarroako Parlamentuak Nazio Batuak premiatzen ditu luzamendutan ibili gabe susta dezaten konponbide justu eta behin betikoa Mendebaldeko Sahararen gatazkari dagokionez; hau da, Saharako herriaren autodeterminazio eskubidea praktikan jartzea erreferendum bat eginez. Eta NBEren Genevako Giza Eskubideen Kontseilua premiatzen du giza eskubideen errelatore bat izenda dezan Mendebaldeko Sahararako.

12. Nafarroako Parlamentuak premiatzen du aurrerabidea egitera Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkariari estatus diplomatikoa emateari dagokionez, Saharako herriaren ordezkari bakarra eta legitimoa del aldetik, NBek onartzen duen legeaz. Eta aurrerabidea egitera Saharako Arabiar Errepublikako Demokratikoaren aldarrikapenean.

13. Nafarroako Parlamentuak hedabideak premiatzen ditu gizarteak ematen dion garrantzi bera eman diezaizoten Mendebaldeko Saharako gatazkari. Eta Saharako herriaren kausarekiko pertsona solidarioei dei egiten diegu Sahara Mendebaldearen egoeraren berri eman dezaten eta sala dezaten sare sozialen bitartez.

14. Nafarroako Parlamentuak arlo unibertsitario, judicial eta politiko-administratiboak premiatzen ditu, lanean jarrai dezaten argitze aldera Sahara Mendebaldean gertatzen diren giza-eskubideen aurkako jarduketak.

15. Nafarroako Parlamentuak bereziki premia-tzen du Cervantes Institutua lotura kulturalak eta

gaztelaniaren hedapena indartu ditzan, Sahara Mendebaldeko bigarren hizkuntza baita, errefuxiatuen kanpalekuetan presentzia edukiz.

16. Nafarroako Parlamentuak esker ona adierazten die Saharako herriarekiko adiskidetasunak elkartuta egunero-egunero lan egiten duten elkar-teei, federazioei nahiz talde solidario eta sozialei, herrialde anaia etorkizunean aske izateko helburu hutsez. Halatan, goresgarria iruditzen zaigu Juristen Nazioarteko Elkartearen lana.

17. Nafarroako Parlamentuak haurrei harrera egiteko "Oporrak bakean" programaren garrantzi handia balioesten du, Saharako eta Nafarroako familien arteko maitasun- eta hurbiltasun-harremanaren eta elkartasunaren erakusgarri behinena baita.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 24an

Foru parlamentariak: Pedro José González Felipe, Irati Jiménez Aragón, Isabel Aramburu Bergua, Irene Royo Ortín, Carlos Guzmán Pérez

11-24/MOC-00082. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu eta Nasuvinsa premiatzen baitira Alokairu Poltsa programa landa-eremuen eta despopulazio-arriskuan dauden udalen inguruabarretara egokitu dezaten

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu eta Nasuvinsa premiatzen baitira Alokairu Poltsa programa landa-eremuen eta despopulazio-arriskuan dauden udalen inguruabarretara egokitu dezaten.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Beharrezkoa da Administrazio Publikoak etxebizitzarako eskubide subjektiboari eman beharreko erantzunean sakontzen segitzea eta, aldi berean, alokairuko etxebizitza ordainerrazeko eskaintza –publikoa nahiz libre– areagotzera bideratutako neurriak ezartzea, Nafarroako Foru Komunitatean dagoen eskari gero eta handiagoari erantzuteko.

Alokairua sustatzea funtsezkoa da gizartearen parte handi bati erantzuteko; izan ere, horien egoera pertsonala eta profesionala dela medio, edo baldintza sozioekonomikoak direla medio, alokairua ere aukera erreala da ostatu-premia konpontzeko.

Bestalde, despopulazioa fenomeno kezka-
garria da, Nafarroako landa-eremuan aurrera egiten
ari dena eta gizartean eta administrazio publiko-
tan interesa sortu duena, despopulazioa geldia-
razteko ekimenei ekiteko. Nafarroan, despopula-
zio hori XX. mendearen bigarren erdian hasi zen,
eta, gaur egun, Nafarroako udalerrien % 60 baino
gehiago daude kaltetuta.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren
Zuzendaritza Nagusiak despopulazio-arriskuan
dauden udalerrien mapa bat eta azterlan bat egin
zituen 2021ean, azken 30 urteotako bilakaera
erreferentziatzat hartuta, non udalerrri bakoitzaren
arrisku-maila adierazten baita. Eragina nabarmena
da Pirinioetan, Pirinioaurrean, Zangozaldean,
Erdialdean eta Estellerrian, baita Nafarroako ipar-
mendebaldeko zenbait udalerritan ere.

Kontuen Ganberaren 2024ko maiatzeko
txostenaren arabera, Nafarroako 272 udalerrietatik
166 despopulazio-arriskuan daude gaur egun, eta,
beraz, beharrezkotzat jotzen du, besteak beste,
despopulazioaren aurka borrokatzeko hartutako
neurriak ebaluatzea.

Nafarroa osoaren iraunkortasuna bera despo-
pulazioaren aurkako borrokan porrot ez egitearen
mende dago.

Gauzak horrela, Nafarroako Gobernuaren Alo-
kairu Poltsaren programa tresna baliagarria da,
bere helburuen artean sartzen baitu hutsik dauden
etxebizitza partikularrak mobilizatzea, alokairu-
arabideko eskaintza publikoa indartzeko eta
etxebizitzaren funtzio soziala bermatzeko. Nafa-
rroako Gobernuaren Alokairu Poltsa, Nasuvinsa
sozietate publikoak kudeatua, Nafarroako herri
guztietara zabaldu zen 2016an, ordura arte Iruñe-
rrira mugatzen baitzen.

Hala ere, Alokairu Poltsaren programa ez da
nahi bezalako eragina izaten ari landa-eremuan,
batez ere despopulazio-arriskuan dauden udale-
rrietan.

Hori dela eta, Alokairu Poltsaren programan
diseinatutako neurriak despopulazio-arriskuan
dauden udalerrien ezaugarri eta premia partikula-
rretara egokitu beharra dago, Nafarroako lurralde
osoan finkatutako helburuetarako baliagarria izan
dadin.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposa-
men hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Etxebizitzako,
Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamen-
tua eta Nasuvinsa-Nafarroako Gobernuako
etxebizitza eta hirigintzako sozietate publikoa
premiatzen ditu eginkizun proaktiboa izan dezaten
Alokairu Poltsaren sustapenean, garapen periodi-
koko komunikazio-lan bat taxututa, Alokairu Pol-
tsako programaren publizitatea eta informazioa
modu erregularrean sustatzeko Nafarroako Foru
Komunitateko lurralde osoan.

2. Nafarroako Parlamentuak Etxebizitzako,
Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamen-
tua premiartzen du Alokairu Poltsaren sustapenean
lankidetzaren proaktiboan jardun dezan etxebizitzak
eta eraikinak zaharberitzeko bulegoekin, lurralde
osoan ezarriko baitaude.

3. Nafarroako Parlamentuak Nasuvinsa
premiartzen du Alokairu Poltsako etxebizitza itzul-
tzeko baldintza ken dezan, baldin eta etxebizi-
tzaren lagapena egin denetik lehenbiziko 3 hilabe-
teetan alokatu ez bada, eta epe hori urtebetekoa
izan dadin despopulazio-arriskuren bat duten uda-
lerrietan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nasuvinsa
premiartzen du Alokairu Poltsan onar daitezen des-
populazio-arriskuren bat duten udalerrietako
landa-etxebizitza tradizionalak eta baserriak, baita
4 logela baino gehiago eta 110 metro koadro
baino gehiago dauzkatenak ere.

5. Nafarroako Parlamentuak Etxebizitzako,
Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamen-
tua premiartzen du jarduketa-ildo gisa har dezan
despopulazio-arriskuren bat duten udalerrietan
abandonatutako higiezinaren leheneratzea, zaharber-
ritu ondoren Alokairu Poltsa programan sartzeko.

6. Nafarroako Parlamentuak Etxebizitzako,
Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamen-
tua premiartzen du berriazko dirulaguntza-ildoak
aintzat har ditzan, despopulazio-arriskuren bat
duten udalerrietan alokairua bultzatzeko.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00276. Galdera, Nair Cener-i kontratatutako zerbitzuei buruzkoa*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nair Cener-i kontratatutako zerbitzuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PEI-00394 informazio-eskarian aipatzen diren organismoek zer zerbitzu kontratatu dituzte Nair Center-ekin?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00277. Galdera, Bustince jauna Nair Cener-eko zuzendari zientifikoa ez izateari buruzkoa*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Bustince jauna Nair Cener-eko zuzendari zientifikoa ez izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Gobernuak Nair Center aurkezteko 2023ko martxoaren 7an eman zuen prentsaurrekoan zuzendari zientifikoa gisa parte hartu bazuen ere, Bustince jauna ez da ageri aipatu zentroan izaera horrekin. Zergatik?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00278. Galdera, Martzillako zubian egin beharreko lanei buruzkoa

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galdera, Martzillako zubian egin beharreko lanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer jarduketa egiteko asmoa dago Martzillako zubian, Aragoi ibaian, eta zer epetan?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

11-24/PES-00279. Galdera, “Epaiak betearaztea, egonkortzeagatiko kalte-ordainak eta konpentsazioak” izeneko F30001-F3100-1820-921400 partidako kreditua handitzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, “Epaiak betearaztea, egonkortzeagatiko kalte-ordainak eta konpentsazioak” izeneko F30001-F3100-1820-921400 partidako kreditua handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

159E/2024 Ebazpena, apirilaren 19koa, Aurrekontuen eta Ondarearen zuzendari nagusiak emana, kreditu-gehikuntzaren bidezko aurrekontu-aldaketa baimentzen duena. Aldaketa hori Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuko Langileriaren Gastuaren Kontrolaren eta Nominen Zerbitzuak eskatu du.

Kreditu-gehikuntza horren arrazoia da ez dagoela behar besteko diru-izendapenik "Epaiak betearaztea, egonkortzeagatiko kalte-ordainak eta konpentsazioak" izeneko F30001-F3100-1820-921400 partidaren.

Honako galdera hauek egiten ditugu:

1. Egonkortze-prozesu horietan parte hartu duten pertsonetatik zenbat ziren langile mugagabe ez-finkoak?

2. Langile mugagabe ez-finkoak ziren horietako zenbatek ez dute lanposturik lortu egonkortze-prozesu horietan?

3. Zenbat diru jaso dute batez beste, kalte-ordain gisa, lanposturik lortu ez eta horretarako eskubidea zuten pertsonak?

4. Zenbat iraun du, batez beste, langile mugagabe ez-finkoen administrazioarekiko lan-harremanak?

5. Metatutako C-59 /22, C-110/22 eta C-159/22 auzietan Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2024ko otsailaren 22an emandako epaia foru-administrazioarekiko lan-harremana bukatu zaien pertsona horien egoerari aplikatzekoa al da? Zenbateraino?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/PES-00280. Galdera, “Epaia betearaztea, egonkortzeagatiko kalte-ordainak eta konpentsazioak” izeneko 400000-41000-1820-322000 partidako kreditua handitzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, “Epaia betearaztea, egonkortzeagatiko kalte-ordainak eta konpentsazioak” izeneko 400000-41000-1820-322000 partidako kreditua handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

157E/2024 Ebazpena, apirilaren 12koa, Aurrekontuen eta Ondarearen zuzendari nagusiak emana, kreditu-gehikuntzaren bidezko aurrekontu-aldaketa baimentzen duena. Aldaketa hori hezkuntza Departamentuko Langileriaren eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak eskatu zuen.

Kreditu-gehikuntza horren arrazoia da aurrekontu-partida horretan ez dagoela behar besteko diru-izendapenik langileei kalte-ordainak emateko epaietatik eratorritako hiru espedienteren ordainketari aurre egiteko eta partidaren eskuragarri dagoen soberakin bat aurki irits daitezkeen eta atzerapenik gabe ordaindu behar diren beste espediente batzuetarako.

Honako galdera hauek egiten ditugu:

1. Egonkortze-prozesu horietan parte hartu duten pertsonetatik zenbat ziren langile mugagabe ez-finkoak?

2. Langile mugagabe ez-finkoak ziren horietako zenbatek ez dute lanposturik lortu egonkortze-prozesu horietan?

3. Zenbat diru jaso dute batez beste, kalte-ordain gisa, lanposturik lortu ez eta horretarako eskubidea zuten pertsonak?

4. Zenbat iraun du, batez beste, langile mugagabe ez-finkoen administrazioarekiko lan-harremanak?

5. Metatutako C-59 /22, C-110/22 eta C-159/22 auzietan Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2024ko otsailaren 22an emandako epaia foru-administrazioarekiko lan-harremana bukatu zaien pertsona horien egoerari aplikatzekoa al da? Zenbateraino?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/PES-00281. Galdera, INTIAko Administrazio-kontseiluak onetsitako batzorde betearazlea sortzeari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, INTIAko Administrazio-kontseiluak onetsitako batzorde betearazlea sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zergatik sortu da INTIAren Administrazio Kontseiluak 2024ko urtarrilaren 23ko bilkuran onetsitako Batzorde Betearazlea?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00282. Galdera, eguzki-panelak paratzeko dirulaguntza-eskariei buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, eguzki-panelak paratzeko dirulaguntza-eskariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2023an eguzki-plakak instalatzeko dirulaguntzen eskaerak ebazteko batez besteko epea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

11-24/PES-00283. Galdera, Alaitz Bigarren Hezkuntzako Institutuari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Alaitz Bigarren Hezkuntzako Institutuari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babe-

sean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Alaitz BHIko hezkuntza-erkidegoaren ahotik jakin dugu ezen, 2024-2024 ikasturterako aurreinskripzio eta matrikula prozesuari begira, Hezkuntza Departamentuaren Plangintza Zerbitzuak ikastetxeari jakinarazi diola talde bakarra esleitu diola Batxilergoko 1. mailan Zientzia eta Teknologia eta Giza eta Gizarte Zientziak irakasteko.

Ikastetxe horretako hezkuntza-erkidegoak ohararazi du talde bakarra ez dela aski izanen, matrikulazioen aurreikuspen historikoa ikusita.

Zein irizpideren arabera erabaki du Hezkuntza Departamentuaren Plangintza Zerbitzuak Batxilergoko 1. mailarako talde bakarra esleitzea Alaitz BHIri, Zientzia eta Teknologia eta Giza eta Gizarte Zientzien modalitateetarako?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00284. Galdera, biztanleriaren euskara jakite mailaren gaineko estatistikaren ohar metodologikoari buruzkoa

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak egindako galdera, biztanleriaren euskara jakite mailaren gaineko estatistikaren ohar metodologikoari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaiola:

Euskararen ezagutzaren arabera biztanleriaren estatistikaren ohar metodologikoak argitzen du estatistika hori atera dela biztanleria-erregistroa osatzen duten pertsonen administrazio-erregistroetatik heldu den informazioa duten mikrodatuetatik abiatuta.

NASTATEk ba al daki ea prozedura hori gaztelania ez den beste hizkuntza bat duten autonomia-erkidegoetako antzeko erakundeek erabili

duten edo erabiltzen ari diren? - Erantzuna baiezkoa bada, zeintzuk dira eta zein estatistika egin dituzte?

Herritar batek jakin al dezake zein administrazio-erregistro dagoen berari edo ardurapean

dituen adingabeei buruz, hizkuntzak jakitearekin lotuta?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

11-24/PES-00285. Galdera, 8 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko 8 asteko guraso-baimena Nafarroan aplikatzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, 8 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko 8 asteko guraso-baimena Nafarroan aplikatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

2019an onetsi zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1158 (EB) Zuzentaraua, 2019ko ekainaren 20koa, gurasoen eta zaintzaileen familia-bizitzaren eta bizitza profesionalaren kontziliazioari buruzkoa, zeinaren bidez Kontseiluaren 2010/18/EB Zuzentaraua indargabetu baitzen.

Zuzentarauak ezartzen duenez, Europar Batasuneko estatuak bermatu egin behar dute langile guztiek izanen dutela zortzi asteko guraso-baimena; 2024ko abuztuaren 2a baino lehen egon beharko du indarrean. Hauxe dio 8.1 artikuluan:

"8. artikulua.- Ordainsari edo prestazio ekonomikoa.

1. Nazioko baldintzekin bat (legedia, hitzarmen kolektiboak edo nazioko usadioak), eta kontuan hartuta mintzakide sozialei eskuordetutako botereak, Europar Batasuneko estatuak bermatuko dute ezen 4. artikulua 1. apartatua edo 5. artikulua 2. apartatua jasotzen diren baimenetako bat baliatzeko eskubidea baliatzen duten langileek ordainsari edo prestazio ekonomiko bat jasotzen dutela artikulua honen 2. eta 3. apartatuetan ezarritakoarekin bat".

Gainera, Europako Zuzentarauak mugaegun bat ezartzen du 20.2 artikuluan, Europar Batasuneko estatuak beren legedian betekizun horiek ezar ditzaten. Gehienez ere 2024ko abuztuaren 2an, EBko herrialdeek lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak jarri beharko dituzte indarrean guraso-baimen horren ordainsari edo prestazio ekonomikoa betetzeko.

Guraso-baimen hori Espainiako lan-arloko araudian jaso zen 2023ko ekainean, ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege-dekretua onetsi zenean. Horren bidez, zenbait neurri hartu eta luzatzen dira Ukrainako Gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, La Palma uhartera berreraikitzen laguntzeko eta beste kalteberatasun-egoera batzuei erantzuteko; merkataritza-sozietateen egiturazko aldaketei eta gurasoen eta zaintzaileen familia-bizitzaren eta bizitza profesionalaren kontziliazioari buruzko Europar Batasunaren zuzentzaruen transposizioa egiteko; eta Europar Batasuneko zuzenbidea betearazteko eta betetzeko. Hartara, 48 bis artikulua berria sartu zen Langileen Estatutuan:

«1. Langileek guraso-baimena hartzeko eskubidea izango dute seme-alaba zaintzeko edo harreran urtebetetik gora hartutako adingabea zaintzeko, adingabeak zortzi urte bete arte.

Baimen horrek gehienez zortzi asteko iraupea izango du, jarraian edo aldizka, eta lanaldi oso-

koa edo lanaldi partzialekoa izan daiteke, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera».

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren aldaketa bat ere egin zen, 49. artikuluari g) letra gehitzeko, honela:

«g) Guraso-baimena seme-alaba edo harreran urtebetetik gora hartutako adingabea zaintzeko, adingabeak zortzi urte bete arte: iraupena ez da izango zortzi astetik gorakoa, jarraian edo aldizka; lanaldi osoan edo lanaldi partzialean hartu ahal izanen da, zerbitzuaren beharrek horretarako aukera ematen badute, eta erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera».

Alegia, Europar Batasuneko zuzentarauak guraso-baimena hartzea aurreikusten du, gehienez ere 4 hilabetekoa (16 aste); horietatik, 2 hila-bete (8 aste) ez dira ordainduak izango, eta 2 hila-bete (8 aste) bai.

Horrela, bada, Espainiako Estatuak Zuzentaruari aurreikusitako guraso-baimenari buruz egin duen transposizio ordaindu gabeko edo prestaziorik gabeko zatiari buruzkoa da soilik (5.2 artikulua, kontrako zentzuan), eta, beraz, ez da egin ordaindutako zatiaren edo prestazioaren xede denaren transposizioa (baimenaren beste erdia).

Bestalde, adierazi behar da ezen Estatuak, egiteke dagoen transposizioa egiten duenean,

erabaki beharko duela ordaindutako baimen baten aurrean gauden ala, aitzitik, prestazio ekonomikoa behar duen baimen baten aurrean gauden.

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1).- Nafarroako Gobernuko edo gainerako administrazio publikoetako funtzionarioak eta administrariak ordaindu gabeko guraso-baimen hori baliatzen ari al dira?

2).- Galdera horren erantzuna ezezkoa baldin bada, Nafarroako Gobernuak noiz aurkeztuko du Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua aldatzeko foru-lege proiektu bat, gurasoei onartuko diena seme-alaba edo harreran urtebetetik gora hartutako adingabea zaintzeko baimena, adingabeak zortzi urte bete arte?

3).- Nafarroako administrazio publikoetako lan-kontratudunek ordaindu gabeko guraso-baimen hori har al dezakete, Langileen Estatutuaren 48. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta? Erantzuna ezezkoa bada, zergatik ez zaie ematen langile horiei guraso-baimen hori?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez sortzen baita sistema informatikoetako teknikari-ofizialaren lanpostu bat, eta erakundearen plantilla organikoa aldatzen

Abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kontuen Ganberak eskumen osoa du bere gobernuari, barne araudiari eta bere zerbitzuko langileei dagokien guztiaren gainean. Nafarroako Kontuen Ganberaren Antolaketari buruzko Erregelamenduaren 16. artikulua arabera, berriz, "Kontuen Ganberako lehendakariak Nafarroako Kontuen Ganberaren antolamenduan sartzen ahalko ditu haren eginkizunak hobeki betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen lanpostuak".

Ganberaren idazkari nagusiak sistema informatikoetako teknikari-ofizialaren lanpostu bat sortzea proposatu du. Proposamen horrek Kontuen Ganberako administratzailearen, kontu-hartzailearen eta Langileen Batzordearen aldeko txostenak jaso ditu.

Hartara, lehendakaria naizen honek, nire ahalmen nahiz eskumenak eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 1985eko urtarrilaren 23ko Eraba-

kiaren bidez eskuordetu zaizkidan eskuduntzak baliatuta, honako hau EBATZI DUT:

Lehena. Sistema informatikoetako teknikari-ofizialaren lanpostu bat sortzea, funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa.

Lanpostu horri dagokion mailaren soldataren % 62,68ko lanpostuko osagarria eta % 12ko mailako osagarria esleituko zaizkio.

Bigarrena. Lanpostu hori Kontuen Ganberaren plantilla organikoa sartzera, eta lanpostu huts horri 3202 zenbakia esleitzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, ezagut dezan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agin dezan, eta Kontuen Ganberaren webgunean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Kontuen Ganberaren Antolamendu Erregelamenduaren 14. artikulua

Kontuen Ganberako lehendakariaren 2007ko otsailaren 16ko ebazpenaren bitartez erakunde horren Antolaketari buruzko Erregelamendua onetsi zen. Erregelamendu hori zenbait aldiz aldatu da –lehendakariaren 2012ko urtarrilaren 20ko, 2019ko urtarrilaren 16ko eta 2021eko abuztuaren 6ko ebazpenen bidez, hain zuzen ere–, lanpostu berriak jasotzeko edota zenbait lanposturen egin-kizunak handitzeko.

Kontuen Ganberako lehendakariaren 31. ebazpenaren bidez –2024ko otsailaren 13koa–, 2024rako plantilla organikoa eta 2023ko abenduaren 31n zeuden funtzionarioen eta behin-behineko langileen zerrenda onetsi ziren. Ebazpen horren bidez, "mandataria" izeneko lanpostuari izenda aldatu zitzaion, eta "zerbitzu orokorrak" izena eman.

Aldaketa horren atzean dagoen justifikazioa da lanpostu horretan bete beharreko eginkizunak zerbitzu orokorretako lanpostu batenak direla, mandataria edo gelazain batenak baino gehiago, Kontuen Ganberaren egungo antolamenduaren eta funtzionamenduaren arabera.

Hortaz, lanpostuaren izendapena aldatzeko orobat aldatu behar da Antolaketari buruzko Erregelamendua; zehazki, 14. artikulua, halako moldez non artikulua horren testu berrian egokiro jasoko baitira lanpostuaren izendapena (zerbitzu orokorrak) eta eginkizunak.

Horrenbestez, eta Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 6.2 eta 15.2.d) artikuluetan xedatutakoarekin bat –non lehendakari naizen aldetik erakundearen antolamenduaren eta barne-gobernuaren gaineko esku-mena aitortzen baitzait–, idazkari nagusiak proposatuta, Kontuen Ganberako auditoreei eta Langileen Batzordeari entzun ondoren, honako hau EBATZI DUT:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganberaren Antolaketari buruzko Erregelamenduaren 14. artikulua aldatzeko onestea (aldaketa ebazpen honi atxikirik doa).

Bigarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, ezagut dezan, eta

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua eman dezan.

Hirugarrena. Ebazpen hau erakundeko idazkari nagusiari, administratzaileari eta Langileen Batzordeari igortzea eta erakundearen web-orrian argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 29an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

ERANSKINA

Nafarroako Kontuen Ganberaren Antolaketari buruzko Erregelamendua

14. artikulua

1. Administrazio-bulegoaren barrenean, hark bere eginkizunak eraginkortasunez bete ahal izateko behar diren Zerbitzu Orokorretako langileak egonen dira.

2. Zerbitzu Orokorretako langileek honako eginkizun hauek izanen dituzte:

a. Jendearentzako arreta eta informazioa.

b. Dokumentuen, gutuneriaren eta paketeen lekualdaketa, erreprografia eta banaketa.

c. Prentsa-laburpenak egunero prestatzea.

d. Kontuen Ganberaren geletako mantentze-lana eta materialak berritzea, non eta horretarako ez den lanbide-kualifikazio berezirik behar.

e. Hirugarrenek instalazioetan egindako mantentze-lanak gainbegiratzeko.

f. Erakundearen instalazioetako altzariak eta ekipamendua lekualdatzea, muntatzea eta desmuntatzea.

g. Artxiboaren, dokumentuen kontserbazioaren eta liburutegiaren arloan laguntza ematea.

h. Ganberaren zerbitzuek hala eskatuta, bes-telako edozein laguntza ematea.

i. Lehendakariak, idazkari nagusiak edota administratzaileak agintzen ahal dizkieten guz-tiak, haien eskumenen barnekoak.

PER20240010. Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko Nafarroako Parlamentuko ikus-entzunezko komunikazioko teknikaria izateko lanpostu bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa

Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

63/2024 Ebazpena, maiatzaren 3koa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren bidez onesten baita aipatu prozeduran onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

2024ko martxoaren 18ko 58. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdiak –alegia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-en-

tzunezko komunikazioko teknikaria izateko lanpostu bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoak– 5. oinarrian ezarritakoarekin bat, honako hau EBATZI DUT:

1. Onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onestea. Honatx:

ONARTUTAKO IZANGAIK:

Izen-abizenak
Amigot Leache, Nerea
Echeverría Sáez, Ainhoa
Epalza Atxa, Maialen
Escala Iparraguirre, Ane
Fernández de Marticorena Rodríguez, Iñigo
Osácar Aizpún, Raquel
Velasco Zozaya, Imanol

BAZTERTUTAKO IZANGAIK :

Ez dago inor baztertirik.

2. Jakinaraztea honako hauek direla Nafarroak Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatutako kalifikazio-epaimahaiko kideak:

– Titularra: Carlos Campo Ustároz jauna, Nafarroako Gobernuako Komunikazio Zerbitzuko zuzendaria.

– Ordezkoa: Itsaso Ibarra García andrea, Nafarroako Gobernuako Komunikazio Zerbitzuko Prentsa Bulegoaren Ataleko kazetaria.

3. Agintzea ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuaren webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

PER20240010. Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko Nafarroako Parlamentuko ikus-entzunezko komunikazioko teknikaria izateko lanpostu bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa

Akats zuzenketa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu Orokorretako buruak txosten bat aurkeztu du, kalifikazio-epaimahaiak akats bat hauteman duelako Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-entzunezko komunikazioko teknikari lanpostu huts bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna duena, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren V. eranskineko 75. gaian.

Deialdi hori Mahaiak 2024ko otsailaren 19an hartutako erabaki baten bidez onetsi zen, eta erabakia Parlamentuaren webgunean eta Parlamentuko nahiz Nafarroako aldizkari ofizialetan eman zen argitara (2024ko martxoaren 18ko 42. NPAO eta 2024ko martxoaren 18ko 58. NAO).

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko ikus-entzunezko komunikazioko teknikari lanpostu bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna

duena, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren V. eranskineko 75. gaian hautemandako akatsaren zuzenketa. Hona zuzenketa:

Honako hau esan ordez: “75. Gaia.- Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorra. Xedapen orokorrak. Ikus-entzunezko komunikaziorako oinarrizko araudia”.

Honako hau esan behar du: “75. Gaia.- Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorra. I. titulua: Ikus-entzunezko komunikazioaren printzipio orokorrak. II. titulua: Telebistako ikus-entzunezko zerbitzua ematea”.

2. Deialdiaren V. eranskineko 75. gaian hautemandako akatsaren zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuaren webgunean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

